

# Liburutegien arteko mailegu zerbitzuaren araudia

## Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemari

---

### 1. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

**1.1.** Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren Sareko liburutegi guztiak atxiki dira Liburutegien arteko Mailegu Zerbitzuari, eta konpromisoa hartzen dute zerbitzu hori ondoren zehazten diren erabiltzaileei eskaintzeko, araudi honetan eta bertatik eratortzen diren dokumentu guztietan ezartzen diren baldintzei jarraikiz.

**1.2.** Sareko liburutegiek zerbitzuaren zabalkundea sustatuko dute, eta erabiltzaileei argi adieraziko diete zein diren liburutegien arteko mailegua erabiltzeko baldintzak eta eskaerei erantzuteko aurreikusten diren epeak. Gainera, azalduko diete liburutegi hornitzailearen baldintzak onartzeko konpromisoa hartu behar dutela eta oroitaraziko diete zein diren prozesuak ekar ditzakeen gastu ekonomikoak eta zer zehapen ezarriko diren materiala galdu, hondatu edo gaizki erabiliz gero (adibidez, eskatutako materiala hartzen ez bada).

**1.3** Liburutegiek aukera dute dokumentu honetan arautzen ez diren beste mailegu batzuk eskaintzeko liburutegien artean (kopiak ematea, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren Sarekoak ez diren liburutegien mailegua, araudi honetan ez dauden euskarriak, etab.), bakoitzak ezarriko dituen baldintzetan.

### 2. ERABILTZEKO BALDINTZAK

**2.1.** Liburutegien arteko maileguan eskatzen diren dokumentuak etxerako maileguan eskuratzen ahalko dira, baldintza bereziak aplikatzeko arrazoi justifikaturik dagoenean. Izan ezik (zehaztu beharko da zein diren baldintza horiek).

**2.2.** Liburutegien arteko mailegua liburutegiek egiten dute, baina zerbitzua ematen da Nafarroako zeinahi liburutegi publikotako helduen txartela daukan zeinahi erabiltzailek eskatzen duenean.

**2.3.** Erabiltzaileek ezin izanen dute liburutegien arteko mailegu zerbitzua baliatu baldin eta zehatuta badaude, behar den epean itzuli gabeko maileguak badituzte edo berankorrek badira.

**2.4.** Mailegu-eskaeran, dokumentua eskatzen duen erabiltzaileak adierazi beharko du dokumentu hori zein liburutegitan dagoen erabilgarri. Liburutegi eskatzaileek zehaztuko dute erabilgarri dauden aleetarik zein eskatzen den, hau da, mailegua tramitatzeke zein liburutegitara joko den.

**2.5.** Liburutegien arteko mailegutik kanpo dauden dokumentuak

**2.5.1.** Nafarroako liburutegi publikoen katalogoan mailegatzeko moduan ageri den zeinahi dokumentu eskatzen ahalko da, baina liburutegi hornitzaileak baimendu edo ukatu beharko du mailegua, zerbitzuaren araudian, maileguen politikan edo dokumentuaren baldintzetan oinarrituta. Zeinahi eskaera egin aurretik, erabiltzaileak ziurtatu beharko du dokumentu hori ez dagoela bere liburutegian.

**2.5.2.** Oro har, dokumentu hauek ezin izanen dira liburutegien arteko maileguan eman:

- Liburutegi eskatzailean dauden dokumentuak,
- Erreferentziazko lanak (entziklopediak, hiztegiak eta abar),
- Dokumentu zahar edo baliotsuak, kontserbazio eta ondare arrazoiengatik liburutegiak babestu behar dituenak.
- Nobedadeak, oposizioetako gaitegiak edo liburutegi hornitzailean eskari handia duten beste dokumentu batzuk.

**2.5.3.** Azken batean, liburutegi hornitzaileak du liburutegien arteko maileguari uko egiteko ahalmena. Ukoaren arrazoi berariazkoak adierazi beharko ditu. Era berean, liburutegi hornitzaileak salbuespenak ezartzen ahalko ditu ohiz kanpoko mailegu batzuetarako. Halakoetan, liburutegi hornitzaileak finkatuko du zein diren ohiz kanpoko mailegu hori arautuko duten baldintza berariazkoak.

**2.6.** Liburutegien arteko dokumentuen kopurua eta mailegualdia

**2.6.1.** Erabiltzaile bakoitzak, aldi berean, liburutegien arteko mailegutik heldu diren 2 dokumentu eskuratzen ahalko ditu gehienez, baldin eta bi hartuta ez bada gainditzen etxerako maileguari buruzko araudi orokorrean gehienez onarturiko dokumentu kopurua.

**2.6.2.** Erabiltzaile bakoitzak urtean gehienez ere 10 dokumentu eskatzen ahalko ditu liburutegien arteko maileguaren bidez.

**2.6.3.** Mailegualdirako eta luzapenatarako arauak eta baldintzak: etxerako ohiko mailegurako indarrean dauden horiexek.

**2.6.3.** Nafarroako zeinahi liburutegi publikotan eskatzen ahalko da zerbitzua. Eskaera egin ondoren, eskaerarekin loturiko izapide guztiak liburutegi horren bidez egin beharko dira (dokumentua hartu, itzuli, hari uko egin, etab.).

**2.6.4.** Mailegu eskaerak aurrez aurre eginen dira.

**2.6.5.** Eskatzaileak Nafarroako liburutegi publikoetako txartela aurkeztu beharko du, eta eskaera inprimakia bete, honako hauek adieraziz: bere datu pertsonalak, eskatu nahi duen dokumentuaren datuak eta dokumentua zein liburutegitan dagoen erabilgarri.

Eskaera jaso duen liburutegiak dokumentua eskatu beharko du eta eskatzaileari jakinaraziko dio mailegua emanen zaion ala ez.

Eskaera egin duen liburutegiak dokumentua jasotzen duenean, erabiltzaile eskatzaileari jakinaraziko dio eta hark hiru egun balioduneko epea izanen du dokumentua hartzeko.

Dokumentua zer liburutegitan hartzen den, hantxe itzuli beharko da, eta liburutegi horrek bidaliko du jatorrizko liburutegira.

### **3. ERABILERA ARDURATSUA**

**3.1** Nafarroako liburutegi publikoek beren gain hartzen dituzte dokumentuak bidaltzeko gastuak; beraz, dokumentuen eskaerak ez dute inolako kosturik erabiltzaileendako. Horregatik, zerbitzuak ahalegin ekonomiko bat eta kudeaketa lan bat ekartzen dituenek, zentzuz erabiltzen saiatu behar da.

**3.2** Mailegu-zerbitzuak liburutegietako bildumak hornitzen ditu, baina ez ditu aleak ordezkaten. Zerbitzu honen helburua da herritarren eskura jartzea interesatzen zaizkien eta behar dituzten dokumentuak, batez ere hurbileko liburutegietan eskuratu ezin dituztenak edo liburutegiak berak bereganatu ezin dituenak.

**3.3** Norbaitek bere eskaera bertan bera utzi nahi badu, lehenbailehen jakinarazi beharko dio eskaera egin duen liburutegiari. Norbaitek eskaerak egin eta eskaturiko dokumentuak hartzera joaten ez bada, zehapena ezarriko zaio eta mailegu zerbitzutik kanpo geldituko da.

#### 4. ERANTZUKIZUNAK, ZEHAPENAK, ETAB.

**4.1** Liburutegien arteko mailegua bi liburutegiren artean egiten da (liburutegi mailegu-emaile bat eta liburutegi eskatzaile bat); beraz, azken hori izanen da dokumentuaren arduraduna, eta hark begiratu beharko du dokumentua ongi eta osorik itzultzen dela eta hartutako konpromisoak betetzen direla.

Liburutegi eskatzailea izanen da dokumentuaren arduraduna, hura bere esku jartzen denetik liburutegi mailegu-emaile itzultzen den arte. Hala ere, liburutegien arteko maileguan eskuraturiko dokumentuen gaineko erantzukizuna erabiltzaile eskatzaileari dagokio maileguan hartzen duenetik itzultzen duen arte.

**4.2** Erabiltzaileak ez baditu hartzen liburutegien arteko maileguan eskatu dituen dokumentuak, zehapen hau ezarriko zaio, arrazoi justifikaturik izan ezean: mailegu zerbitzua hilabete batez erabiltzeko debekua.

**4.3** Erabiltzaileari beste arrazoi batzuegatik ezarri beharreko gainerako zehapenak (dokumentua galtzeagatik, atzerapenez itzultzeagatik, etab.) etxerako ohiko maileguetarako aplikatzen diren berberak izanen dira.

**4.4** Erabiltzaileak dokumentua galtzen badu edo itzultzen ez badu, dokumentu horren ordezkotako ale bat ekarri beharko du, etxerako ohiko maileguetan bezala.